

**2.007-KO IRAILAREN 27AN EGINDAKO APARTEKO
BATZARRALDIKO AKTA.-**

" ZUMAIAKO Hirian, bi mila eta zazpiko irailaren 27an, arratsaldeko zazpi eta erdietan, udaletxe honetako Biltzar Aretoan, Udal Plenoa eratu da ohiko batzarraldia egiteko asmoz, aurrez izendatutako eguneko aztergaiari jarraituz, eta garaiz eta era onez deituak izan zirelarik, ondorenean aipatzen diren udal bazkideak etorri ziren:

PRESIDENTZIA.-

Iñaki AGIRREZABALAGA ALKORTA

ZINEGOTZIAK.-

Maria Eugenia ARRIZABALAGA OLAIZOLA
Lide AMILIBIA BERGARETXE
Unai MANZISIDOR ANDONEGI
Manuel ZUBIA ARTABE
Andoni ETXANIZ OSA
Miren Nerea EPELDE AZKUE
Joseba Josu ASPIAZU AZKARRAGA
Pilar ETXABE IRIONDO
Cristina FORCADA UNAMUNO
Xabier OLAIZOLA ANTIA
Emiliano CABAÑAS GONZALEZ

IDAZKARIA.-

Miren ETXEZARRETA GARMENDIA.

**1.- AURREKO BILERETAKO AKTEN ONARPENA, BIDEZKO
BADA:**

2007.06.16; 2007.07.14; 2007.07.20

Alkate-lehendakari jaunak bilera eratutzat eman ondoren, onarpenera aurkeztutako aktei buruz, korporazioko kideren batek, zuzenketarik egin nahi duen galdetu du.

EAJk uztailaren 14ko aktari buruz zera dio:

1.- Kargu hautetsien ordainsarien atalean, EAJ alderdiak ezezko botoa emango duela jasotzen dela, adierazitako arrazoiak aipatu gabe.

Jaso behar da: EB-Aralarrek aurkeztutako enmendakinari EAJ-ak ezezko botoa emango dio, “orain dela lau urte, gobernuan egonda, antzeko proposamen bat jaso genuelako. Orduan ezetz erantzun genuen. Orain, oposizioan egonda, ez litzateke ulertzeko erraza izango baiezkoa”.

EA-ak eta ANV-ek aurkeztutako liberazio proposamenari ere ezezkoa emango dio EAJ-ak. “Liberatu nahi direnak ez dira ez gure Alkatea eta ez gure zinegotzia. Baina ez da hori gure ezezkoaren arrazoia. Arrazoia beste hau da: guk agindu dugunean 30 eta 13 nibelesko ordainsariak egoki iruditu zaizkigu, eta beste batzuk direnean agintean daudenak ere maila berdinak defendatzen ditugu”.

2.- Batzorde berriemaile iraunkorren eraketa eta osaketaren atalari dagokionez, ondorengoa jaso dadila eskatzen du:

Alkatetzak batzorde berriemaile baten lehendakaritza eskaini ziela, baina ez zutela onartu, zein Batzorderen lehendakaritza izan axolarik gabe, beraien ustez Alkatetza zegokielako.

Orain lau urte ezker abertzaleari egindako eskaintzari buruz ANVko zinegotziak “beraien proposamena historikoa eta zentzu horretan aberatsa” izan dela dionean gehitzen du “ez orain lau urte EAJ-ak guri egin zigunaren antzekoa, gurekin ez zutela ezer behar esateko deitu ziguten eta”. Horri EAJ-ko zinegotziak erantzuten dio “Orain dela lau urte EA-rekin hitzarmena genuen, eta eskusibitatea suposatzen zuen. Eta akordarazten diot ANV-ko zinegotziari oraindik ere hilabete ez dela, Alkate aukeraketa izan aurretik telefonoz deitu niola bilera batetarako gonbita eginez eta guk PNV-rekin ez dugu ezer nahi, ez orain eta ez datozen lau urtetan- erantzun zidala.”

Azkenik dio Herritarren partaidetza, etorkinak eta berdintasuna eta gazteria Batzorde informatiboaren osaketari dagokionez, EAk bi ordezkari dituenek, bat sobra dagoela.

Alkateak dio batzorde horretan bera izango dela lehendakari eta partaide, beraz, Pilar Etxabe Iriondo EAko zinegotziari ez dagokiola ordezkariarik Herritarren partaidetza, etorkinak, berdintasuna eta gazteria Batzorde informatiboan.

3.- Zumaia Lantzeneko karguei dagokienez, batzuen egoera zibila ez da aipatzen. Zuzentzeko eskatzen da.

EAJ-ak San Juan Egoitzako estatutoen aldaketa iragarri zela akordatzen du eta bide batez, ea noiz gauzatuko den galdetzen du.

Alkatetzak erantzun du hurrengo Juntan sartuko dela.

ANVk ere uztaileak 14ko aktari buruz zuzenketa hauek eskatzen ditu:

.- Kargu hautetsien ordainsarien atalean, euskarazko eta gaztelarazko idazketa bateratu egin behar dela dio.

Euskarazkoan zera gehituaz: gobernu taldeak egiten duen proposamenak 71.000 €ko kostua duela, aurreko legegaldiko ordainsariekin alderatuaz %30eko jaitsiera, hau da, 99.000 €ko kostua.

.- Joseba Josu Aspiazu Azkarraga zinegotziaren abizena “s”-rekin idazten dela “z”-rekin idatzi ordez.

EB-B/Aralar taldeak uztailaren 14ko aktari buruz eta kargu hautetsien ordainsariari dagokionez zera dio beraien hitzetan jarri dela, Alkatetza duen alderdi politikoa hirugarren indarra dela eta Alkatetzan dagoela EB-B/Aralarren botoei esker. “Esker” hitza ez baizik “laguntza” esan zuela dio.

Aldaketen testuak idatziz aurkezteko eskatu du Idakariak zinegotziek adostasuna adierazi dute.

Alkateak aurrerantzean Plenoen grabaketa egin dadin ikusentzunekoa Pleno aretoan jarri duen etxearekin harremanetan jartzeko eskatu dio Idazkariari.

Zuzenketa edo emendakin gehiagorik aurkeztu ez denez, bozketa eginda, batzordekideek aho batez onartu dituzte 2007-06-16, 2007-07-14 eta 2007-07-20ko aktak, azalduko aipamenak kontuan izanik.

2.- OGASUNA.- 2006-ko KONTU OROKORRAREN ONARPENA, BIDEZKO BADA.

Hazienda Batzordeko Lehendakariak, 2006ko Kontu Orokorra, maiatzeko azken batzordean aurkeztu zela dio. Orain ekarri da Plenora orduan denborarik ez zelako egon, baina aurreko gobernuaren gestioa islatzen duen dokumentua da.

Kontuhartzailearen txostena eta Batzordeko irizpena irakurri ditu ondoren.

KONTUHARTZAILETZAREN TXOSTENA

GAIA: KONTU OROKORRA

APLIKAGARRIA DEN LEGEDIA: abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 62 eta 63 atalak, Erakunde Lokaletako Aurrekontuen buruzkoa, eta Abenduaren 1eko 97/1992 Foru Dekretuaren 326tik 336ra arteko erregelak, Udal Entitateen Kontabilitate Instrukzioa onesten duena.

TXOSTENA: Kontu Orokorrak ekitaldian zehar burutu diren aurrekontu-eragiketa guztiak, independenteak eta auxiliarrak, ondarezkoak eta diruzaintzakoak jasotzen ditu.

Udal Entitateek, aurrekontuen likidaziotik aparte, Kontu Orokorra egin beharko dute eta ondorengo hauek osatuko dute: Entitate berarenak, bere Organismo Autonomorenak eta Sozietate Publikoenak beren kapital soziala %50etik gorako partaidetza dutenean. Kontu Orokorra honek, bai Udaletxeari bai Organismo Autonomoei dagokionean, ondoko zati hauek izango ditu:

- 1.- Aurrez alkate dekretuz onartutako Aurrekontuaren likidazioa.
- 2.- Udaletxean aurkeztutako abal guztien zerrenda.

- 3.- Egoera balantzea, ekitaldiaren itxiera egunean Ondarearen osaera eta egoera adierazten duena.
- 4.- Galdu-irabazien kontua, ekitaldiaren emaitzak azaltzen dituen ekonomia eta ondarearen ikuspuntutik.
- 5.- Ekitaldiaren txosten bat, urteko finantzaketa taula eta zorraren egoerarekin.

Kontu Orokorrean parte hartzen duten Sozietate Publikoak, hiru azkeneko dokumentuak aurkeztu beharko dituzte, hau da, egoera balantzea, galdu-irabazien kontua eta txostena.

Kontu Orokorra, Kontuen Batzorde Bereziaren txostenarekin batera, jendurrean azalduko da 15 egunetan eta ondoren Udaltzaren onespenerako jarriko da eta, bidezko bada, uztailearen 31 baino lehen onetsiko da. Herri Kontuen Euskal Epaitegiari behar bezala onetsitako Kontu Orokorraren berri emango zaio arautegian ezarritakoaren arabera.

Maiatzaren 29an Kontuen Batzorde Bereziaren (Hazienda Batzordea) Kontu Orokor hau aurkeztu zen eta aldeko irizpenarekin GAO-n jendurrean jarri zen 15 eguneko epean inolako eragozpenik edo oharrik aurkeztu gabe.

Zumaian, 2007. go uztailearen 16an
Kontuhartzailea,

2007KO MAIATZAREN 29KO HAZIENDA BATZORDEAREN IRIZPENA, 2006KO KONTU OROKORRARI DAGOKIONA.

AURREKARIAK

1.- 2007ko martxoaren 30ean 2006ko aurrekontuen likidazioak onartu dira, Udalari eta Erakunde Autonomoei dagozkienak, San Juan Egoitza eta Musika Patronatua.

2.- Maiatzaren 29an 2006ko Kontu Orokorra aurkeztu da Hazienda Batzordean. Kontu Orokorrak ekitaldian zehar burutu diren aurrekontu-eragiketarik guztiak, aurrekontuz kanpokoak, ondarezkoak eta diruzaintzakoak jasotzen ditu eta kopuru eta kontzeptu garrantzitsuenak aztertzen dira.

3.- Kontuhartzailetzako txostena erantzen da.

IRIZPENA

Ondorioz, Batzorde honetan, EAJren bi aldeko botoekin, IUren abstentzioarekin eta Izustarriren kontrako botoarekin, Hazienda Batzordeak aldeko irizpena jaso du eta honako PROPOSAMEN hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47 artikuluan araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo sinplea beharko da):

1.- Jendaurrera azalduko da 15 egunetan, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 63.3 artikulua araberara.

2.- Jendaurrera epea amaitutakoan eta aurkeztutako erreklamazioak edo oharak erabakita, udalbatzaren onespenerako jarriko da, eta bidezkoa bada uztailaren 31 baino lehen onetsiko da.

3.- Kontu Orokorren berri emango zaio Herri Kontuen Euskal Epaitegiari, behar bezala onetsita, haren arautegian ezarritakoaren arabera.

Zumaia 2007ko maiatzak 29
Kontuhartzaileak

Hazienda Batzordeko lehendakaria, ANVkoak, beraiek 2006ko kontu orokorraren aurka daudela adierazi du argudio politikoetan oinarriturik. Hasteko 2006ko aurrekontuak ez zirela onartu dio, horren ordez PNV eta PSOEk ontzat emaniko kreditu aldaketa bat onartu zela. Ondorioz ANVk ez du onartzen kreditu aldaketa horren exekuzioa, abiapuntua ez duelako onartu. Laburbilduz, agiri honek superabit garrantzitsu bat egon dela adierazten du eta gastuen exekuzio urri bat. Batez ere 6. kapituluarena, inbertsioena hain zuzen. Kapitularik pisutsuena eta hein handi batean ez dena gauzatu.

EAJk dio, hasteko kontu orokorraren aurka bozkatzeko ez direla nahikoa argudio politikoak, baizik argudio teknikoak behar direla. Hala ere, idatzita ekarri duten testu bat irakurri du, ondorengo azalpenak jasotzen dituen:

Hasteko, 2006ko hasierako aurrekontua 2005koaren luzapena izan zela kontutan hartzea oso da inportantea. (Horregatik ez datoz bat hasierako sarrera eta gastu partidak).

Luzatutako hari (8.842.837 €) 2005etik zetozkigun geldikinak gehitu genizkion (2.476.200 €) eta horri 2006ko maiatzean onartutako kreditu aldaketa (2.635.641 €).

EAJk zera adierazi du, aurrekontuari buruzko exekuzio mailari dagokionez:

- Gastu arruntetan %98,57ko exekuzio maila lortu genuen (oso ona)
- Kapitaleko operazioetan berriz, %71,26. Honen barruan Inbertsio errealean exekuzioa %53,37 izanik.

Guk ere nahigo genuke inbertsio errealeen exekuzio maila hori handiago izan balitz.

Baina kontuan har ditzagun izenburu hotz horren atzetik dauden kontzeptuak, hori baita garrantzizkoa.

Hor ditugu 2005-2011 Ez ohiko Plana. Odieta, E.Gurrutxaga, eta abar. Gobernu krisiaren detonantetzat erabili zena. Zenbaterainoko erantzukizuna dugu gutako bakoitzak programa horren atzerapenean? Gure uste erantzukizun politiko handia zenbaitek.

Beste exekuziorik gabeko partida Alondegikoa da. Zergatik?. Proiektuak ere egin beharra zegoen, noski. Baina zenbateraino jokatu da talde politiko eta "gizarte eragileen" aitzakiekin proiektua atzeratzeko?. (Azken egunotan, nonbait gobernu ekipo berriak adostasun errazak lortu ditu talde eragileen partetik, Zumaiako Kultur bizitzaren diagnosi sakonik edo etorkizunerako plangintzarik egin beharrik gabe).

Herri Eskolako frontoia egin zen. Eta arrakastatsua da.

Eta Santiokoa ez da oraindik ere egin. Ez dakit Zapateroren aurrekontu negoziaketekin zerikusirik duen gaia den edo, besterik gabe, Madrili bost axola zaiola Santio hondartzaren egoera.

Igogailu eta fatxadak: ordenantzaren arabera, eskaera epea urte amaiaren amaitzen da eta horrek desajusteak eragiten ditu aurrekontuekiko.

Izartu II ren transferentzia ezin da egin Zumaia Lantzenera, goian aipatzen den bezala, ez badira lanak egiten.

Eta Zumaia Lantzen eman beharreko 600.000 euroko transferentzia 2005eko aurrekontutik arrastatu zena da.

Hori dena kontutan hartuta, gainontzeko partidetan % 89,36 izan zen exekuzio maila.

Esan behar gu prest gaudela 2007ko aurrekontuen likidazioa egiten duzuenean kontzeptuen xehetasun maila berbera mantentzeko. Eta izenburu hotzen azpian dauden errealitateak sakonean aztertzeko.

Sarreraren aurrekontuari dagokionez, berriz, lehen esan bezala, hasierako zifrak 2005ekoak dira. Beraz, 2006ko KPIari ere egokitu gabekoak.

Horrela, %10,11aren superabita lortzen dugu. KPI kontutan hartua izan balitz igoera, txikiagoa. Edozein modutara, sarrera gehiago izateagatik superabitei ez diogu inoiz muzin egin. Ez eta egingo ere.

Horien barruan:

- FOFIM-a uste baino handiagoa izan zen, zorionez.
- Olarro Egunerako dirulaguntza ezusteko bat lortu genuen, pelmada handia emanda.
- Interesak ere izan genituen. Diruak diru pixka bat gehiago eragiten duelako.

Nola lortzen da superabita?. Gastu arrunta zuhurtasunez kalkulatuta. Eta horrela finantzatzen dira denok (noski herritarrek ere) hain gustukoak dituzten inbertsioak.

Eta bukatzeko: ez dezagun nahastu kontabilitate publikoa patrimonialarekin.

Azken honetan “irabazia” bezala agertzen dena (3.000.000 €) errealitatean, inbertsioak finantzatzeko dirua denean.

Guzti honegatik, EAJren botoa aldekoa da.

PSOEk, EAJk egiten duen analisiarekin bat datorrela dio. Ekitaldi ekonomikoaren barruan gauzatzea lortzen ez diren partidak ez dira etekintzat hartzen, baizik eta geldikinetara joaten dira . Eta hori ohikoa izaten da inbertsioetan, zenbait egitasmo aurrikusitako denboran ez direlako exekututzen, eta hurrengo urteko ekitaldi ekonomikora pasatzen dira geldikin formarekin. Baina ezin daiteke esan soberakin horiek etekinak direnik. Etekinak balira banatu egin beharko lirateke. Eta hori ez da egiten. Baizik eta hurrengo ekitaldi ekonomikoan gauzatzeke gelditu den egitasmora bideratzen dira. Plan Bereziaren kasuan portzentaia handiago batean exekutatu zitekeen baina ez da posible izan eta barneratzen dituen beste zenbait proiekturen gauzatzea aldiz ekitaldi bat baino gehiagora dago lotua. Sarrerren atalean ere zehatz mehatz aurrikusterik ez dauden partidak egoten dira, adibidez hirigintzan, 10%eko lagapenarena,. Guzti honegatik gure botoa aldekoa da.

EB-B/Aralarrek zera irizten dio, kontu orokorra kontuhartzaitzak gauzatu eta Udaletxearen kontabilitatea islatzen duen agiri bat dela. Eta nahiz eta aurrekontuaren aurka bozkatu, kontu orokorraren alde emango dutela botoa.

ANVk dio, etekin hitza dokumentuan jasotzen dela, ez dela beraiek esandako zerbait. Eta kopuru jakin batekin: 3.016.600 €

EAJk dio iaz ere eztabaida berbera eman zela. Eta arrazoa kontabilitate patrimoniala eta publikoa bereiztean datzala.

Kontabilitate patrimonialean kopuru hori etekin izenarekin adierazten da, baina ezin da esan etekina denik, baizik geldikina.

Bozketa aurretik eztabaida sortzen da kontu orokorraren aurka argudio politikoetan oinarriturik bozkatzea balitekeen edo ezin litekeen. Eta soilik argudio teknikoak erabili behar diren ezezkoa bozkatzeko.

Idazkariak ondorengo dio: Aurkako botoak argudio kontabletan oinarritua egon behar duela. Adibidez, eragiketa matematikoetan akats bat dagoela, ordain agiriren bat ez dela kontuan izan, jasotzen diren balorazioak ez direla zuzenak ... Botoa soilik kontabilitateko arrazoi teknikoetan oinarritu behar dela. Ezinezkoa da kontu orokorraz baliatzea zeharka beste gai baten aurka azaltzeko.

Aurka bozkatu duten zinegotziei bide judizialek erantzukizunak eska dakizkieke eta Epaileak erabakiko du zuzenbidearekin bat datorren ezezko botoaren argudioa. Zuzenbidez egokia balitz kontuak zentzu horretan zuzenduko dira eta ez balitz dagokion erantzukizuna eskatuko zaio aurka bozkatu duenari.

Eztabaida sortu da ondoren abstentzioaren bidez kotasunaz.

EAJk dio ezezkoa bozkatzeko argudio tekniko kontableak kontuan hartzen badira abstentziorako ere berdin izan behar duela.

Zentzu berean PSOEk dio argudio politikoak erabili daitezkeela aurrekontuak onartzean, baina ezinezkoa dela kontuak ixterakoan. Kasu honetan kontabilitate arrazoiak erabili behar direla.

EAK dio legeak kontraesan bat jasotzen duela politikoen zeregina filosofia politiko bat mantentzea delako eta ez argudio teknikoak bilatzea.

Bozketa eginik;

Aldeko botoak: 7 (4 EAJ , 1 EB-B/A eta 1 PSOE)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 5 (3 ANV eta 2 EA)

ERABAKI DA:

2.006ko Kontu Orokorra onartzea, Udaletxeko Kontuaz, San Juan Egoitzakoaz, Musika Patronatukoaz eta Zumaia Lantzen Elkartea Anonimokoaz osatzen dena, jendaurreko agerraldi epea iraganik eta inolako oharpenik aurkeztu ez delarik.

3.- HIRIGINTZA:

3.1.- INDUSTRIAS GAIR, S.L.-ek, UDAL BATZA OSOAK 2007.07.20-ko DATAZ, ZUMAIKO SAHIESBIDEA N-634 ERREPIDEAREKIN LOTZEKO ERROTONDA EXEKUTATZEKO BEHARREZKO LURREAN ZUZENEKO OKUPAZIOARI BURUZ, HARTUTAKO BEHIN BETIKO ONARPEN AKORDIOAREN AURKA TARTERATURIKO BIRJARPEN HELEGITEAREN EBAZPENA.

Hirigintza batzordearen irizpenak honela dio:

I.- JARRITAKO ERREKURTSOAREN EDUKIA

-Okupaziorako presako deklaratzeari ez dagoela arrazoituta.

-Lurzoruaren Legea eta Nahitaezko Desjabetzearen 52. artikulua dioena ez dela betetzen.

-Hirigintza-erakigarritasuna zehaztea falta dela.

-Oro har aurreko idazkietan azaldutakoa errepikatzen du.

II.- GOGOETAK

1.- Errekurtsio egileak aurreko idazkietan azaldutakoa errepikatzen du. Beraz, 2007ko maiatzaren 29an emandako txostenean azaldutako guztia errepikatu behar da, zehazki arrazoitze faltari dagokiona.

Errekurtsio egileak presako kalifikazioa erantzen du, herri-hornidurarako zuzendutako lursailak zuzenean okupatzea justifikatzeko 2/2006 Legeak 188. artikuluan eta hurrengoetan erabiltzen ez duena. Nolanahi ere, eta 2007-05-29ko txostenean

azaldutako arrazoiengatik, begi-bistakoa da premiazko edo presakoa izendatzea, ordurako Zumaiako saihebidia egiteko lanetan hasita zegoelako Aldundia. Horretarako, Gipuzkoako Foru Aldundiak Zumaiako Udalari bidalitako errekerimendua eranstean zaio errekursoaren erantzunari; agiri horren bitartez errotonda berria egiten hasteko aipatutako lursailak eskura jartzea eskatzen zaio Udalari.

2.- Errekurtoa aurkeztu duen erakundeak Udalari Lurzoruaren Legea ez betetzea leporatzen zaio, arinki, manurik zehaztu gabe.

Udala zorrotz betetzen ari da Ekainaren 30eko 2/2006 Lurzoruaren Legeko 188. artikulua zehaztutakoa, jardunbide integratuetan barne edo atxikita dauden sistema orokorren edo herri mailakoen sarek herria hornitzeko aurrez lursailak eskuratzea ahalbidetzen duena.

Kasu honetan ezin da aplikatu Nahitaezko Desjabetzearen Legeko 52. artikulua ezartzen duena, ez delako lursailik desjabetzen, baizik eta aurrez okupatzen dira lursail batzuk, eta horien jabeek eraikigarritasuna eta hirigintza-eskubideak gorde egiten dituzte.

3.- Okupatzeko unean dagokion akta egingo da, eta bertan zehaztuko dira, besteak beste, okupatutako eremuari dagokion eraikigarritasuna, indarrean dagoen planeamenduko hirigintza-aurreikuspenen arabera.

Ondoren landuko den Birpartzelazio Proiektuan zehaztuko da xeheago dagokion lur-zatia, edo Unitateari emandako lursail guztien hirigintza-eskubideen ordainetan jabeari egokituko litzaiokeen konpentsazio ekonomikoa, ez bakarrik aurrez okupatutakoenak, jarritako finkei edo finkei dagozkienak baizik, betiere administrazio jarduleari dagokion aprobetxamendurako %10eko legezko lagapena kenduta.

Zuzeneko okupazioko espedienteak ezin du birpartzelazioko espedientea ordeztu, sistema orokorrek edo herri mailakoak exekutatzeko administrazioei lursailak aurretiaz eskuratzeko Lege berriak eskaintzen dien tresna delako.

Birpartzelazio espedientea behin betiko onartuta egon izan balitz, eta Unitatean ezarritako kudeaketa prozedura burututa balego, ez zen aipatutako lursailak okupatzeko premiarik izango, haiek Administrazioari lagako zitzaizkiekeelako birpartzelazio proiektuan, Legeak hala aginduta.

Hirigintza batzordeak erabaki du ondoren jasotzen den ebazpen proposamena onartzea.

Bozketa eginik, eskubidezko hamahiru zinegotzietatik, batzarrera bertaraturiko hamabi zinegotziren aho batasunean ERABAKI DA:

1.- 2007-07-20ko osoko bilkurako erabakiaren aurka Industrias Gair, S.L.k aurkeztutako birjarpen-errekurtsoa oso-osorik gaitzestea, arestian azaldutako arrazoiengatik.

2.- Erabaki hau legeak dioenaren arabera interesatuari jakinaraztea.

3.2.- ZUMAIAKO SAHIESBIDEA N-634 EREPIDEAREKIN LOTZEKO ERROTONDA EXEKUTATZEKO BEHARREZKO LURRAK, GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ESKU UZTEA, BIDEZKO BADA.

Hirigintza Batzordearen irizpena irakurri da, Zumaiako saihesbidea N-634 errepidearekin lotzeko errotonda exekutatzeko behar diren lursailak Gipuzkoako Foru Aldundiaren esku jartzeari buruzkoa.

.- 2007-07-20ko osoko bilkuran behin betiko onartu zen Zumaiako saihesbidea N-634 errepidearekin lotzeko errotonda exekutatzeko behar diren lursailak zuzenean okupatzeko espedientea.

.- 2007-09-04an okupazioaren aurreko aktak sinatu ziren.

.- Gipuzkoako Foru Aldundiak Zumaiako Udalari eskatu zion osoko bilkuran erabakitzeko aipatutako sistema orokorreko lursailak eskura jartzea, ondoren Zumaiako Udalak berak proposatu eta Aldundiak ontzat emandako errotondaren aldatutako proiektua erredaktatu eta exekutatzeko.

Bozketa eginik, eskubidezko hamahiru zinegotzietatik, batzarrera bertaraturiko hamabi zinegotziren aho batasunean ERABAKI DA:

LEHENA: Gipuzkoako Foru Aldundiaren esku uztea Zumaiako saihesbidea N-634 errepidearekin lotzeko errotonda exekutatzeko behar diren lursailak (erantsita doa plano).

BIGARRENA: erabaki hau Foru Aldundian dagokion organo eskumendunari jakinaraztea.

HIRUGARRENA: Alkate-Lehendakaria gaitzea erabaki hau betetzeko behar diren agiri guztiak sinatu ahal izateko.

4.-ESKARI GALDERAK:

Alkateak adierazi du, Gai Ordenan akats bat dagoen arren, ohiko bilkura denez Eskari Galderen atala erantsi behar zaiola banatu den Gai Ordenari.

Eta puntu honetaz baliaturik bi adierazpen egiten ditu:

1.-San Migelekoek gonbidapena luzatu diotela korporazioari jaietan parte hartzeko.

2.- Algorri: zintzilik dagoela korporazioari egindako bisita gidatuaren gonbidapena eta data finkatu behar dela.

Ondoren Alkate-lehendakariak korporazioko kideren batek eskakizunik edo galderarik egin nahi duen galdetu du.

EAJk galdera egin du irailaren 14ean Pleno Aretoan eman zen prentsurrekoari buruz, eta ondorengo testua irakurri du:

Oker ez bagaude irailaren 14an ANVek, Andoni Etxaniz bozeramaile zela, Pleno Areto honetan prentsurrekoa eskaini zuen.

Ez zen izan Udalari eta udal gobernuko ardurei buruz zerbait esateko, ANV-ek Askatasunak Batzoki aurrean biltzeko egindako deialdiaren aurrean Ertzantza agertu zela salatzeko erabili zuen Pleno Aretoa. Eta salaketa hori egiteko ez ezik, EAJren aurka hitz gogorrak botatzeko ere bai.

“Beste zenbait konturen artean *“PNV-k pistoleroz josi zuen Beheko plaza, mugitzen zen edonori demokraziaren zama gainera botatzeko prest. PNV-ren bakea izan genuen ostegunean Zumaiako kaleetan”* esan zuela agertu zen komunikabideetan.

ANVrentzat eta Andoni Etxanizentzat ertzainak “pistolero” hutsak dira, nonbait. Eta hori agerian utzi nahi zuen. EAJren pistoleroak, gainera.

Antzeko salaketak egin ohi zituen ezker abertzaleak beste garai batzuetan. Baina ez zituen prentsurreko bitartez egiten, Udalbatzari mozioak aurkeztuz baizik.

Oraingoan formula berriak harritu gaitu: Andoni, zergatik mozioa aurkeztuz betiko ohiturei heldu beharrean prentsurrekoa egiteko erabili Pleno Aretoa?.

Kalean jaso dugun erreflexio batek akaso balio digu galdera horri erantzuteko: mozioak Udal Talde Politiko guztiak botoa ematera behartzen dituelako. Eta ANVrekin sozio den EA konpromiso larrian jarriko lukeelako horrek.

Gertakizun honen aurrean EAJ kideok gauza bat behintzat argi atera dugu; hemendik aurrera prentsurrekoak emateko erabili ahal izango dugula Pleno Areto hau.

Eta ez Udalarekin zuzenean zerikusia duten gaiei buruz bakarrik. Erabili ahal izango dugu, adibidez, herenegun Zarautzen ETAk Ertzantzaren aurka egindakoaren aurrean salaketa egiteko. Ertzantzari buruz ETAk, eta dirudienez, ANVek duten iritzi amankomunari buruz, edo egoki deritzogun beste edozein konturi buruz. Udaleko gainontzeko talde politikoek bezala, noski.

Alkateak dio EA ez luketela konpromiso larrian jarriko printzipioak garbi dituelako.

ANVn prozedura aldaketaren zergatiak adierazten ditu. Andoni Etxanizek dio, irailaren 14ean etxera zihoala beheko plazan Ertzantzaren bi konejera ikusi zituela eta beltzez jantzitako agenteak beren armamentuarekin.

Udaltzaingora joan zela informazio eske eta adierazi ziotela Batzoki aurretan kontzentratzeko ANVren deialdia zela eta etorri zela Ertzantza. Despliegea izugarria zela txurrero parean zeudela denak “en posición no muy amigable” eta jendea kontzentrazioa egiteko asmoarekin. Beste batean ere demokrazia beraien gain ez erortzeko, eta Donostian gertatu zena ekiditeko hartu zuela erabakia Pleno Aretora bideratzekoa. Beraien kontzentrazio batean ez beste begirik ateratzeko, ez igandean ez ostegunean.

PSOEek dio ez dela sartuko gai hau eztabaidatzen, baina lekuz kanpo dagoela pleno aretoaren erabilera helburu politikoetarako. Pleno aretoa udal kudeaketarako dago eta ez beste gauzetarako. Eta horrelako ekitaldiak ezin dira udal kudeaketari dagokion esparruan sartu.

Bestalde, udal aldizkariari buruz galdetu du, Paolari buruz, gobernu taldeak zer iritzi daukan eta zer gertatu behar den Paolarekin.

ANVn dio Zumaiako Paola Aldizkarian ildo politikoa, zoritxarrez, gobernu taldetik finkatzen zela eta beraiek ez dutela beste batzuk erabili zituzten molde berberak erabili nahi, eta azterketa sakon bat egingo dutela dio.

ANVko Andoni Etxanizek gogora ekartzen du udal antolaketa Plenoan kargu publikoen ordansariari buruzko atalean Lide Amilibiak esandakoak, aurreko legegandian bera zela bigarren liberatua eta 13. mailari zegokion ordainsaria zeukala. Beretzat hori soldata duina zela eta orduan ere herriaren alde lan egiten zuela. Harritu egiten dela ezkerreko eta aurrerakoi diren taldeentzat hori ez dela horrela ikusita.

Bitxikeria modura adierazi, Mankomunitateko Lehendakaria den Lide Amilibiaren soldata Jaurlaritzako zuzendariorde batena izatera pasa dela, lehengoarekin alderatuta %70ean igo dela. Eta kontuan hartzen badugu %75eko liberazioa duela, soldata %126ean igo dela adierazi behar da. Hau da, 66.411 €ko soldata. Ez daki Urola kostari kopuru hau duina irudituko zaion.

EAJko Lide Amibilia zera erantzun du: prentsari zuzenduriko hitz horietan ikusi ezina nabari dela. Mankomunitateko gaiak Pleno Aretora ekarriaz berriz bazterrak nahasteko gogoia.

Atzo ere, Mankomunitateko bileran adierazi ziola, lanpostuari zegokion maila orain lau urte erabaki zela eta bera abstenitu egin zela une hartan, besteak alde bozkatu bazuten ere.

Atzo berriz Lehendakariaren lanaldia erabaki zela eta Andonik bakarrik bozkatu zuela aurka, ez dakiela zergatik, Zumaiarra delako edo emakumea delako. Aukera izan zuela lanaldiaren %100 izatekoa, gehiengoa zuelako, baina bere erabakia izan zela %75ean ezartzea egokiagoa iruditu zitzaidalako.

Alkateak dio gai hau Mankomunitatekoa dela eta ez dagokiola Udal Plenoari.

EAJko Lide Amibilia bat dator Alkatearen hitzekin eta Andoniri zuzenduaz dio hemendik lau urtera aurkeztu dadila eta ea ateratzen duen Mankomunitateko Lehendakaritza.

ANVko Andonik dio ez dakiela non gelditzen den orain hilabete batzuetako argudioa.

EAJtik erantzun zaio Iñaki Agirrezabalaga Alkate izatearekin ezadostasuna zutela baina inoiz ere ez karguari zegokion soldata mailarekin izan ere EAJrentzak ontzat ematen dutena besteentzat ere horrela dela deritzela.

ANVk dio beraien soldatez hitz egiten den bezala askatasun osoz hitzen behar dela besteenez.

EAJk dio eztabaidatu bai, baina bakoitzari dagokion foruan. Eta gehiengo absolutuaz argi eta garbi atera zela Mankomunitateko soldata eta ez maltzurkeriaz, beste batzuk ibili ziren bezala zerbait lortu nahirik paperak azpitik pasatuaz.

EB-B/Aralarek dio ANVk papera pasa aurretik erabakita zeukatela beraien botoaren zentzua.

EAJk dio agerian geratu zirela papera eta jendearen larritasun aurpegiak.

ANVk dio 13. maila soldata duina dela 9. maila den bezala, aldiz 40. maila tauletatik kanpo dago.

EAJk erantzun du hori erakundearen erabaki bat dela, EUDELEN irizpideetan oinarrituta.

ANVk EUDEL batez ere EAJ dela gaineratzen du eta EAJren politika sostengatzen duela.

EUDEL, gure herrialdearen gehiengo politikoaren islada bat dela adierazten du EAJk eta batzuen zoritxarrerako gehiengoa EAJk daukala.

Orain lau urte zergatik abstenitu zen galdetu dio ANVri.

ANVk erantzun du hasiberriak zirelako eta orain esperientzia gehiago dutelako. Espero ez zuen lekuetan espero ez zituen erabakiak hartu zituelako.

PSOEk Zumaiako Udal Plenoan gaudela dio eta ez dagokiola Mankomunitateko gaiak jorratzea, zerbait aurkezteko ez bada behintzat. Eta Gai Ordenan ere ez dago barneratuta.

Amaitzeko, Alkateak Plenoen ordutegia aurrerantzean ordu erdiz aurreratzea proposatu du, zazpitan finkatuaz, aurkako iritzirik ez badago. Proposamena aho batez onartu da.

Eta beste gairik ez dagoenez, batzarraldia amaitutzat eman da, gaueko bederatziak direnean, eta nik, Idazkari honek, fede ematen dut.

ZUMAIA, 2.007-ko urriaren 15ean.

O.E ALKATEA.-

IDAZKARIA.-